

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

3259

68/2025 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa bosgarren aldiz aldatzea baimentzen duen Erabakia argitaratzea xedatzen duena. Aldaketaren helburua da Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoari buruzko informazio-azterlana definitzeko azterketak egitea eta Trenbide-espazioak Mugatzeko eta Erabiltzeko Proiektua eta Trenbide-zerbitzuko Eremua Antolatzeko Plan Berezia egitea.

Gobernu Kontseiluak, uztailaren 8an egindako bilkuran, onartu baitzuen Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoari buruzko informazio-azterlana definitzeko azterketak, Trenbide-espazioak Mugatzeko eta Erabiltzeko Proiektua eta Trenbide-zerbitzuko Eremua Antolatzeko Plan Berezia egitearren Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa bosgarren aldiz aldatzea baimentzen duen Erabakia, behar bezalako publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoari buruzko informazio-azterlana definitzeko azterketak, Trenbide-espazioak Mugatzeko eta Erabiltzeko Proiektua eta Trenbide-zerbitzuko Eremua Antolatzeko Plan Berezia egitearren Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa bosgarren aldiz aldatzea baimentzen duen Erabakiaren testua. Ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 15a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2025eko uztailaren 24a, osteguna

ERANSKINA, UZTAILAREN 15EKO 68/2025 EBAZPENARENA,
JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIARENA

ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EUSKAL TRENBIDE SAREARI EMANDAKO KUDEAKETA-GOMENDIO HONEN BOSGARREN ALDAKETA BAIMENTZEN BAITA: LEZO-GAINTXURIZKETAKO (GIPUZKOA) TERMINAL INTERMODAL ETA LOGISTIKOAREN INFORMAZIO-AZTERLANA, TRENBIDE-EREMUAK MUGATZEKO ETA ERABILTZEKO PROIEKTUA ETA TRENBIDE-ZERBITZUAREN GUNEA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA DEFINITZEKO AZTERLANAK EGITEA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak lankidetzaprotokolo bat sinatu zuten 2020ko urtarrilaren 22an, Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoa garatzeko behar den lankidetzabideratzeko, eta terminal intermodal eta logistikoa garatzeko behar diren informazio-azterlana eta eraikuntzaproiektuak egiteko. Terminal hori jasota dago Estatuko eta autonomia-erkidegoko plangintzan, bai eta Europar Batasunaren 1315/2013 (EB) Erregelamenduan ere. Protokolo hori 2022ko urtarrilaren 22an luzatu da. Protokolo horren arabera, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, betiere Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin koordinatuta, aipatutako terminal intermodal eta logistikoa horren informazio-azterlana eta eraikuntzaproiektuak definitzeko behar diren proiektuak eta azterlanak garatuko ditu, zeinek Interes Orokorreko Trenbide Sarera konektatzea ere ahalbidetuko baitute.

Gaur egun, 18/2024 Dekretuak, 16. artikuluan, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren esku uzten ditu trenbideen gaineko egitekoak (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 11.2 artikuluan a) eta e) letrek egiteko hauek esleitzen dizkiote, hurrenez hurren, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenekoak diren garraio-azpiegiturak garatu eta mantentzeko inbertsioak planifikatu eta programatzea, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako lurralde-administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinazio ekonomiko, tekniko eta administratiborako tresnak proposatu eta prestatzea garraio-azpiegituren arloan.

Maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bidez, Euskal Trenbide Sarea zuzenbide pribatuko ente publikoa sortu zen, eta Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Sailari atxikita dago. Ente publiko horrek du eskumena Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren eta kudeaketa-gomendioan ematen zaizkion trenbide-azpiegitura guztietan (egungoetan edo etorkizunean eraikiko direnetan).

Gainera, Euskal Trenbide Sarearen maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen 5.4 artikuluan arabera, entitatearen helburuetan sartzen da, halaber, Jaurlaritzak agintzen dion eta trenbide-garraio azpiegiturak eraiki, zaindu eta administratzearekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen beste edozein eginkizun, eta, bereziki, hauek: azterlan eta proiektuak idaztearekin zerikusia duten eginkizunak, eta trenbideko garraio politikari, telekomunikazio-zerbitzuei eta gune publikoen erabilerari loturik dauden azpiegituren kudeaketarekin zerikusia dutenak, edozein dela ere kudeaketa horretarako erabiltzen den negozio juridikoa, baldin eta zuzenbidean onartzen direnetakoa bada.

Aurretik xedatutakoa kontuan hartuta, Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an egindako bileran kudeaketa-gomendio hau eman zion Euskal Trenbide Sareari: Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, trenbide-eremuak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua eta azken hori garatzen duen dokumentua –trenbide-zerbitzuen gunea antolatzeko plan berezia– definitzeko azterlanak egitea. Hasiera batean esleitutako kredituak birbanatzeko eta jarduketan guztizko aurrekontu zenbatetsia egokitzeko, gomendia aldatzea baimendu zen 2021eko maiatzaren 25ean, 2022ko uztailaren 26an, 2023ko abuztuaren 29an eta 2024ko ekainaren 4an, eta aurrekontua seiehun eta hirurogeita lau mila bederatziehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta berrogeita hamalau zentimo izatea kalkulatu zen (664.979,54), BEZa barne. Hona urterokoak:

2020: 24.321,00 euro.

2021: 86.136,90 euro.

2022: 9.120,38 euro.

2023: 30.401,26 euro.

2024: 515.000,00 euro.

2024ko urtarrilaren 18an, 2020ko urtarrilaren 22an sinatutako protokoloa aldatzeko gehigarria sinatu zen. Horren bidez, protokoloaren indarraldia aldatu zen, 84 hilabetera. Sinatu zenetik hasten da indarraldia.

Euskal Trenbide Sarea ente publikoak lanen exekuzio-mailari eta espedientean atxikitako justifikazio-memorian garatutakoari dagokienez egin dituen oharren arabera, beharrezkoa da hasieran aurreikusitako aurrekontu-banaketa moldatzea eta hasieran zenbatetsitako aurrekontua egokitzea.

Horrenbestez, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak proposaturik egindako bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak hau erabaki du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Euskal Trenbide Sareari 2020ko otsailaren 18an emandako eta 2021eko maiatzaren 25ean, 2022ko uztailaren 26an, 2023ko abuztuaren 29an eta 2024ko ekainaren 4an aldatutako kudeaketa-gomendioaren 6. puntua aldatzea (6. puntua: Lanen balorazioa eta ordainketa). Kudeaketa-gomendia lan hauek egiteko eman zitzaion: Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, trenbide-eremuak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua eta azken hori garatzen duen dokumentua –trenbide-zerbitzuaren gunea antolatzeko plan berezia– definitzeko beharrezkoak diren azterlanak egitea.

Bigarrena.– Gomendio hori betetzeko baldintza zehatzak erabaki honen eranskinean daude.

Hirugarrena.– Kudeaketa-gomendia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

ERANSKINA

6.– Lanen balorazioa eta ordainketa.

Gomendioan emandako lanen balioespena zazpiehun eta hamalau mila bederatziehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta berrogeita hamalau zentimo da (714.979,54), BEZa barne. Hona hemen urterokoak:

2020: 24.321,00 euro.

2021: 86.136,90 euro.

2022: 9.120,38 euro.

2023: 30.401,26 euro.

2024: 0,00 euro.

2025: 515.000,00 euro.

2026: 50.000,00 euro.

Enkargu honen ondorioz egiten diren lanak hileroko ordainduko dira, egindako lanak justifikatu ondoren betiere. Horretarako, kasuan kasuko faktura aurkeztu beharko zaio Administrazioari.